



ONGI BIZITZEKO, TA ONGI ILTZEKO LAGUNTZA

Jose Kruz Etxeberria

Iturria: *Ongui bicitzeco ta ongui iltzeco laguntza*, Jose Cruz Echeverria. La Lama, 1824.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxeberriaJKongi.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**ONGI BIZITZEKO,
TA ONGI ILTZEKO LAGUNTZA**

Eskaintzen dio Jesus onari eskaldunen onerako
Aita Frai Jose Kruz de Etxeberria
Zarauzko Kolejioko Misioneroak

TOLOSAN
D. Juan Manuel la Lamaren Moldetegian. 1824



Bizi bedi Jesus

Irakurleari itz bat

Paratu diot, Kristau maitea, liburutxo ori izentzat, *ongi bizitzeko, ta ongi iltzeko laguntza*, bi arrasoi gatik. Bata, zergatik emen esaten diranak maiz, ta ongi konsideratzeaz, ta ematen diran konsejuak kunplitzeak lagunduko dio bakoitzari, Jaungoikoaren bildur santuan bizitzen, ta gero onek berak lagunduko dio, ongi iltzen. Bigarren arrazoia, zergatik besteri ongi iltzen laguntzeko moduak, ta orazioak ere dakazkien. Letu zazu bada maiz liburutxo au, balia zaitez dakarrenaz, ta lagunduzio dizu, Jaungoikoaren bildur santuan bizitzen, ta ori bera izango dezu gero laguntzarik onena, ongi iltzeko. Letu itzatzu ere guztiak batean ez bada ere, batzuek egun batean, besteak bestean, ongi iltzen laguntzeko dakazkin orazioak, bada serbituko dizute oriek ere esan deran fiñerako. Estiritu Santuak dio: *obe dala proguko etxera joan, jate handi, edo festako etxera baño*. Eta ematen du arrazoia esanaz; *zergatik proguko-etxean ematen zaio aditzera bakoitzari zertara guztioik etorri bear degun*. Zuaz bada, kristau maitea, proguko etxera ez bada, laster progua, edo illeta izango denera konsiderazioa mediante, iltzen laguntzeko paratzen diran orazioak, liburutxo onetan maiz letzen dituzula, ta probetxu andia aerako du zure animak. Jaungoikoak dizula onetarako gogoa. Amen.

Esazu karidadez, Jaungoikoak bere glorian gerta dezala au eskribitzen zuena. Ala izan dedilla. Eta Purgatorioko Arima guztiak gure Jesusen merezimenduak gatik Zeruan lenbait len arki ditezela. Ala izan dedilla.

Konsejua

Erregutzen diet artarako modua dutenai, artu dezatela illen Bulda bat urteoro, urte artan iñor etxean iltzen bada, arentzat bereala eskribitzeko. Eta urtearen kabua allegatzen danero iñor ill ezbada, eskribitu bezate urtea akabatu baño lenado, berak gusto duten animaren sufrajiorako.

LENBIZIKO PARTEA



LENENGO KAPITULOA

Zeiñ Jaungoikozko gauza dan ongi iltzen laguntzea

Erozeñek dakien gauza da eriak bisitatzeko obra miserikordiakoa. Bai ta ere Ebanjelioak aditzera ematen diguna, Juizioko egunean Juez guztien Juezak onai gloria emateko motibotzat paratuko dituela egin zizutzen obra miserikordiakoak. Projimoari egiten diogun ona, berari egintzat artzen du Jaungoikoak, berak esana daukan bezela, ta abetan bat kontatzen da, eriak karidadez bisitatzea. Eta au gauza ona bada, dan bezela, ta ainbeste estimatzen badu Jaungoikoak, zenbat geiago estimatuko ez du eriotzako peligroan dagoena bere orazio, konseju, ta exortu santuakin kondenazioko bidetik apartatzeko, ta Zerura joateko alegiña egitea? Zenbat geiago balio ez du animak, gorputzak baño? Eta animari on egiñaz, animari, ta gorputzari, bai egiten zaie, eta ez erozein alere, baizikan izan ditekean andiena, betiko kondenaziotik libratu, ta betiko Zerura allegatzea. O zenbat balio duen gauz onek! Ainbeste, eze Jaungoikoa bera humildu zan, gizon egitera, ta sinisten degun eriotza padezitza, ta asko gauza miragarri egitera, au gizonarentzat logratzeagatik. Ez da bada penitentziarik, ez da obra on aiñ andirik, nola animak infernuko bidetik apartatu, ta Zerura ditezen alegiña egitea. Jaungoikoari animen salbazioan laguntzea da; ta orregatik esan zuen Santu batek: *Jaungoikozko gauza guztietan Jaungoikozkoena au dala*. Onetan enpleatzen dira bada, ta ez gutxiena, Kritabari, eriotzako peligroan dagoenean, beren orazio, konseju, eta ekortuakin, eriotza on bat izan dezan, laguntzen diotenak. Tranzerik estue-nean arkitzen da ordu artan Kristaba. Ordu artan utsegiten badu, betiko utsegiten du, ta utsegiterik ikaragarrienarekin. Etsaiak ikusirik, ordu artan eskapatzen bazaie, betiko eskapatuko zaiela, saiatzen dira, ura alegiña tentatzera, edo betiko galtzeko moduak egitera, lotzen ez baditu beñepen Jaungoikoak.

Zer karidadea izango ez da bada orazio, konseju, ta exortu santuakin alegiña egitea, aiek berenarekin atera ez ditezen, ta anima ura betiko galdu ez dedin? O ez da itzik obra miragarri au ponderatzeko, eta zenbat anima galtzen diran ordu artan sokorru au falta zaielako! O zer bendizioak espera ditzaken Jaungoikoagandik opbra on onetan enpleatzen danak! Beragatik artu bear da afizio andi bat, obra miserikordiako andi onetan enpleatzeko, bakoitzak alduan moduan, alduen orazio, konseju eta exortuakin, eriarri akto kontriziokoak, fedeko, esperanzako eta

Jaungoikoaren amorioak maiz egiñaz. Pazienziara, ta Jaungoikoaren borondatearekin bat egitera, animatuaz. Ongi konfesatua dagoela uste ez badu konfesa dedilla, oraindik denbora kuela, amorio andiarekin esanaz Ama Birjiñari, San Jose gloriosoari, bere Aingeru guardakoari, beste Aingeru ta Santuai biotzarekin bada ere deitzera, animatuaz. Bakoitzak alduen moduan, ez da jakinduria andirik bearrik onetarako, ez da eskolarik ere, ta beragatik ez da zer atzeraturik eskolaren faltagatik. Eskolan dakitenak balia ditezke liburuxo onetan paratzen ditudan exortu, edo orazioaz, edo beste liburuetan ere daudenaz, edo euskeraz ere lenago bada onetarako liburu, beragatik nik au ateratzea, etzan gauza bearra, baña aterazi dirate; ta ala lenago bat bazan, orain bi izango dira. Eta ongi iltzen laguntzeko, eskribitu bear nuen ezkerro, eskribitu nai izan det lenago zerbait, ongi bizitzera, mugitzeko.



BIGARREN KAPITULOA

Zer dan ongi iltzeko laguntzarik onena

Ongi iltzeko laguntzarik prinzipalena, Kristau maitea, da ongi edo Jaungoikoaren bildur santuan bizitzea. Ez da erraz, gaizki bizitu, ta ongi iltzea. Gertatzen da noiz bait, baña gutzhienean. Jaungoikoaren bildur gabe bizitzen diran kristabak ez dira egoten, ta ez daude libre bat batean iltzetik beste asko bezela, ta onelako eriotzak maiz entzuten dira. Zer esperanza izan ditekete orduan aien salbazioaz? Andirik ez, kontrarako motibo geiago. Bat batean iltzetik libratuagatik, ta Sakramentuak errebitzera allegatuagatik, gaiz izaten da, aiek eriotza ona egitea. Gaitzak artzen dituen bezeiñ laster, sartzen dira komunki bildur ikaragarrian jaungoikoaren bildurraren izan duten falta gatik; burua berotzen zaie, ta ezin sosegatu dirala, arkitu oi dira. Ongi konfesatu bear, salbatuko badira, ta bururik, ta sosegurik ez examina egiteko, ta ezin mugitu biotza, bear diran motiboak gatik pekatuen damua, ta geiago ez egiteko propositua artzera. Nai pekatu ez egin izana, merezi izan, ta bildur diran betiko kastigen bildurragatik, baña bear dan motibo Jaungoikozkoagatik pekatuak gorrotatzeko, neke andia. Esperatu bear Jaungoikoaren miseriakorian, ongi konfesatuko badira, ta salbatuko badira, ta beren biotza artaratzeko, nekea. Beren pensamentu guztia merezi dituzten kastigen bildurrean irukitzen dute komunki. Jaungoikoa gogorra egoten da orduan komunki, bere graziarekin aiei lñaguntzeko; Santuak ere ez txit errazak, bitartekoen ofizioa egiteko; eta onela deabruak egiten dute komunki nai duten guztia. Au gertatzen da komunki Jaungoikoaren bildur gabe bizitzen diranean eriotzan. Orregatik esaten du Dabid Errege, ta Profeta Santuak, *guztiz gaiztoa dala pekatarien eriotza*. Orregatik ezin konta ala letzen dira liburuetan kondenturak agertzu diranak, azkeneko gaitzean Sakramentuak errebitu zituztenetik ere.

Zer erremedio bada alako desgrazia negargarrian gure burua ez ikusteko? Orduan, edo eriotzako orduan naiko deguna, lenago egin izana, orain egitea. Eta zer da ori? Pekatutik, ta artarako okasioetatik alde egin, banidadeak, dibersio gaizto, ta peligrasoak utzi, zorrik bada, pagatzeko alegiña egin, bakoitzak bere estadu, ofizio, eta enpleoko obligazioakin kunplitu, ta duen moduz bat obra onetan enpliatzea. Orduan nai izaten da, pekatuari iñoiz lekurik ez eman izana; ez diozagun, bada, eman, ta argalak bezala noizbait ematen badiogu, konfesa gaitzean lenbaitlen

damu, eta propositu egiazkoarekin. Orduan nai izaten da bakoitzak dituen obligazio partikularraikin kunplitu izana, kunpli dezagun bada orain. Orduan nai izaten da banidade, danza nastu, ta munduko beste dibersio peligrasoen zalea ez izana; ez gaitzean bada orain izan. Orduan nai izaten da, maiz ongi konfesatzera, meza santua entzutera, errosario, kalbario, beste debozioetara, liburu santuen leziora, dotrinak, platikak, ta sermoiak enzutera, pobreak sokorritzera, ta beste obra miseriakordioetara afizionatua izana; izan gaitzean bada orain. Onela bildur gutxi izango degu, eriotza gaiztoa izateko; au izango da, eriotza on bat egiteko laguntzarik onena. Sakramentuak errebitzeko denbora izaten badegu, erraz egingo degu konfesio ona, ta ongi errebituko ditugu beste Sakramentuak ere; esperanza andia izango degu Jaungoikoaren miseriakorian; erraz entzungo ditu berak; ta Santuak ere gure erreaguak, ta gugatik bestek egingo dituenak, ta etsaiaren alegiñak indar gutxi izango dute gure kontra.



IRUGARREN KAPITULOA

*Jaungoikoaren bildurrean bizitzen
laguntzeko gauza egokiak*

Esan deran guztira gu mugitzeko, gauza guztiz egokia da, eriotza, ta gure beste azkenak alegiña maiz konsideratzea. Orregatik esaten du Espiritu Santuak: *akorda zaitez zure azkeaz, ta ez dezu iñoiz pekaturik egingo*. Ai besterik ez balitzake ere jaiero ordu laurdentxo bat badere konsideratuko bagenduke edo eriotzan, edo jaungoikoaren Tribunalean izan bear degun juizio edko juzgamenean, edo aren bildur gabe bizitzen diranentzat prestatua dagoen betiko infernuan, edo onelako beste gauzaren batean! Ai, bizi geran baño obeto pratatuak biziko bagiñake, eriotza on bat izateko! Ai! bestela baño zenbat bildur geiago izango geniokeen pekatuari, gorroto geiada banidade, honra falzo,, gutizia, ta munduko dibersio peligrosoai! Ai! zenbat afizio geiago izango genukeen, maiz ongi konfesatzeko, ta lenago esan ditudan beste obra onetarako!

Gitxi bada ere gaia izan dezazun onetarako liburutxo onetan bertan, paratu nai dizkitzut oraiñ esatera noan konsiderazio moduak. Konsiderazio abetatik, eta beste erozeñetik frutu geiago ateratzeko modua da: eletzen asitzeko santiguatu gutxiena, Espiritu Santuari gutxi batere zerbait errezatu, ta gero aldan espasio, ta konsideraziorik andienarekin letu ezkerro, letu dana konsideratzen bere issillean gelditzea, belau-niko egon albaditeke, ta egoten bada, obe, bestela beste modu errespeto-koren batean jaungoikoaren aurrean dagoela pensaturik. Zenbat eta geiago kargatzen duen bere konsiderazioa letu duen gauzan, anbat eta geiago mugituko da an letu dituen proposituetara, ta beste gauza santuetara. Oni deitzen zaio, orazio mentala, zeñaren falta ez du iñork ongi ezagutzen, ez bada artara emana danak. Afizionatu bada bakoitza aldan guztia onetara.

LENENGO KONSIDERAZIOA

Eriotzaren gañean

Erabakia dago jaungoikoagandik guztiontzat il bearra. Ez da iñor eskapatuko onetatik, ez da andirik, ez txikirik, ez pobrerik, ez aberatsik, iñor ere. Il bear degu bada erremedio gabe, ta gutxiena uste degunean alere. Ez du instante bateko seguridaderik ez zarrak, ez gazteak, ez persona eritsuak, ed gorputz argaldunak, ez osasun andikoak, ta gorputz sendodunak. Il bear degu. Oraindañokoak azken au izan dute, oraingoak au izango dute, ta aurrera etorriko diranak ere bai. Il bear degu bada, ta zertarako lalioko digute orduan gure pekatuak? Zer balioko digute gure banidadeak, gure arrotasunak, mundu honetako dibersio gaizto, ta peligrosoak, ainbeste guztatzen zaizkigun mundu onetako honrak ta mundu onetako ondasunen amorioak itxuturik, ainbeste ansiarekin billatzen ditugunak, bear bada bide gaiztoan, ta aiñ amorio itxutuarekin konserbatu nai ditugunak? Zer egin ziran onela zoraturik bizitu ziran gure aurrekoak? Il ziran, aztu ziran, ta geienak beñepein infernuan arkitzen dira oraiñ. Izan dute iñoiz pozarik onelako gauzetan enpleatu ziralako, edo amatu zituztelako? Ez, pena baizik izan ez dute, ta oraindik ere geienak pena ark martirizatzen ditu. Batzuek bat bateko eriotza batek pekatuan atxitu zituen, beste asko berriz, Sakramentuak errezibitzeko modua izan bazuten ere, ez zuten bear dan prestaerarik izandu, aiek errezibitzeko bear bezela. Zer egin ziran aien jantzi arroak? Ezer ezera biurtu ziran. Zer egin ziran ainbeste ansiarekin billatu zituzten munduko enpleo andiak? Utsean gelditu ziran. Zer egin ziran aien ondasun andiak? Emen utzi zituzten guztiak, marabedi bat ere berekin eraman gabe. Zer egin zan gorputzen edertasuna? Sustanzia gabeko gauza bezala instante batean ezer ezera etorri zan; ta ainbeste amaten zituzten gorputxak etorri ziran arren janari izatera, autsera, ta ezer ezera. Geiena amaten zituzten personak ere ezin disfrutu izan zituzten etxean il ezkerro; lenbait len atera zituzten, ta lurpean izan zuten beren azkena.

O anima nerea! noiz etorriko ote zaigu egiazko desengañua? Posible izango da onen bistan guk sustanzia gabeko gorputzen edertasun engaño-garriaz kasorik egitea? Banidadeaz, jantzi arroaz, munduko dibersio peligrosoaz, honra falso, ta munduak amaten dituen beste gauzaz zoraturik egotea, aiek amatzea ta gorputz despreziagarria adoratzen, ta ari gusto ematen enpleatzea? Ez, anima nerea ez, ez, goiz, edo berandu, nai, ta nai



ez gorrotatuko deguna, gorrota dezagun bereala. Orain probetxuarekin gorrrotatuko degu, baña geroko utzitzen badegu, ez daukagu seguridaderik, probetxuarekin gorrotatzeko. Gorrota ditzagun orain pekatuak, aietarako okasioak, adiskidetasun gaiztoak, munduko banidadeak, arrotasunak, honren afizioa, guztia, dibersio gaizto, ta peligrosoak.

Utzi diezagun munduko gauzetan burua galdurik ibilli nai dutenai; ekin diezagun gogotik salbazioko bideari, ta iraun dezagun artan; Jaungoikoak eriotza dala medio noiz baño noiz beragana deituko digun itxedeten, bada gutxiena uste degunean izango da. O nere Jaungoiko ona! indazu onetarako grazia nere Jesusen merezimentuagatik. Ez det nai geia-go Zure ofensarik, sobra ofenditu zaitut oraindaño.

Ejenploa

Ez bat bakarrak, baizikan asko Autorek kontatzen dute beren liburuetan gertaera au. Neskata zoro banidade, ta munduko zorakerietara emana zan bat ezin ekarri zuen Konfesoareak arrazoiatar, ta etzion artu nai ematen zion penintenziarik. Zer egin zuen Konfesoareak? Esan zion, besterik ez bazan ere, egin zezala penintenzia au: eskuak garbitzen zituen bakoitzean esan zezala bere artean, *zuritasun au arrak jan bear dute*. Artu zuen penintenzia au, kunplitu zuen, ta denbora gutzhiren buruan neskata zoroa juizioan sartu zan. Utzi zituen bere banidadeak, ta erokeria guztiak, ta birtuoso a egin zan.

BIGARREN KONSIDERAZIOA

Juizio partikularren gañean

Il bear degu, ta gutxiena uste degunean alere, ta bear bada beste asko bezala bat bateko eriotza dala medio. Bai baña ez da il bear izatea aiñ bildurgarria, nola onen ondoren ikusteko gaudena. Il bear degu, apartatu bear du gure arimak gorputz opnengandik, ta orduan bertan, ta au gertatuko dan lekuan bertan agertu bear du Jaungoikoaren Tribunalean, gorputzarekin batean egin duen guztiaren kontua ematera. O zer kontu estua artuko zaion bere pensamendu, deseo, itz, ta obra guztien gañean! O zer kontu estua artuko zaion, zertan enpleatu dituen bere potenziak, zertan gorputzaren sentiduak, zertan munduko ondasunak! Nola kunplitu duen munduan izan dituen estadu, enpleo, ta ofizioakin. Nola, bataio santuan egin zituen promesak: nola aprobetxatu dan bere probetxurako egin ziozkan beste Sakramentuaz, nola sermoiaz, liburu onen lezioak, edo aditu zituen, ta ikusi zituen gauza onaz, ta bere anima salbatzeko para ziozkan ainbeste medioz.

O anima nerea! Zu arkitu bear zera zuri eziñ esan ala on egin dizun, ta orregatik ere zuk asko ofenditu dezun Juezaren aurrean, ta bera Juez dala? Bai, Zu arkitu bear zera guztia dakien, ta ezin engañatu ditekene, ta gaizki arkitzen bazaitu zure kontuetan, edo bere desgrazian, iñolaz ere, ta iñork ere ezin gozatuko duen Juez ikaragarri aren aurrean? Bai. Eia zer gertatuko da, edo zertara etorriko zera, bere desgrazian topatzen bazaitu? Betiko kondenazioko sententzia emango dit, eta ez du iñork ere atzeratuko sententzia au. O! desgrazia hau guztia? Bai au guztia, ta ezin andiagorik izan ditekene; ta falta gabe azken Juizioko egunean gorputzak nerekin batean, mundu guztiaren aurrean lotsa, ta juzgamen ikaragarria sufrituta.

O! non, edo nola bizi naiz ni? Nola bizi naiz ni ainbeste desgrazia-rako bidean bizi naizala, pensatu gabe? Nola bizi naiz ni, banidade, munduko honra falso, dibersio gaizto, ta peligroso, gutzia, aragiaren gusto gaizto, edo beste pekatuakin, naiz bat bakarra balizake ere itxuturik? Nola ez ditut gorrotatzen munduko honrak, banidadeak, dibersio gaizto, ta peligrosoak, ta pekatu guztiak? Nola ez naiz bizi beti bildur santu batekin, pekatutik, ta artarako okasioetatik iges egiten deral, nere obligazioakin ongi kunplitu, ta deran moduaz bat, obra onetan enpleatzen naizala, Jaungoikoak bere Tribunalera deitzen diran edozein denboran, bere grazian topa nazan, ta alako sententzia ikaragarria nere kontra aditzetik



libra nadin? O! arrazoi da ni juizioan, ta arrazoian sartzea, egin diran ezkerro Jaungoikoak mesede, oraindño bizirik utzitxeaz. Ea anima nerea, egin ditzagun moduak, alako desdixarik gure gañean ez ikusteko. Ea, utzi diezagun gu oraindño bezala, mundu onekin zoraturik, beren salbazioaz azturik, bizi diranai. Jaungoikoak eman diezela, desengañatzeko grazia. Akaba bitez instante onetatik guretzat banidadeak, arrotasunak, munduko honra falsoen amorioa, aren dibersio gaizto ta peligrosoak, aragiaren gusto zikin, adiskidetasun gaizto, ta beste pekatu guztiak; ta ekin diozagun gogotik birtuteko bideari, degun moduaz bat maiz ongi konfesatzen, ta beste obra onetan enpleatzen gerala, ez dira iñoiz geiegi izango salbazioa seguratzeko, artu ditezkeen kuidado guztiak. Erraz galdu diteke, ta beiñ galtzen badegu, betiko galduko degu. Animo bada, Jaungoikoaren grazian konfiaturik. O nere Jaungoiko miserikordiosoa! konberti nazazu egiaz Zugana, josi nazazu Zure bildur santuarekin, ta iraunazi zadazu orretan, deitzen dirazunean Zugana, bildur gabe agertu nadin Zure Tribunalean; ta ez Juez aserrea, baizikan Aita amorosoa Zu topa zaitzadan. Amen. Ez det nai geiago Zure ofensarik, sobra ofenditu zaitut oraindño.

Ejenploa

Asko Autorek, ta Franzisko Puteok San Brunoren bizitzako liburuan kontatzen du: bizi zala Parisen fama andiko gizon jakintsu bat, ta bere bizi moduan ere gaiztoa ez ziruriena, baña il ezkerro Jaungoikoak agertu zuen, zer zan, ta beraren abotik alere. Eraman zuten bada enterratzera, ta entierroa kantatzen Sazerdoteak ari zirala, allegatu zanian itz abek kantatzeko denbora, *Erantzun zadazu, zenbat diran nere pekatuak*; jaiki zan difuntua illoietik, ta arpegi ikaragarri batekin jendeari begiratzan ziola esan zuen deagarrez, *Jaungoikoaren juizio justuagatik akusatua izandu naiz*, ta bereala jarri zan lenago zegoan bezela. Ikusia dagoen bezela, jende guztia arriturik, ta ikaraturik gelditu zan. Utzi zuten entierroa urrengo egunerako, juntatu zan besperan baño jende geiago; asi ziran entierroa kantatzen, ta lenagoko itzetara allegatu ziranean, jaiki zan difuntua ta esan zuan deagarka: *Jangoikoaren juizio justua gatik jugsatua izandu naiz*. Utzi zuten entierroa irugarren egunerako, are jende geiago batu zan. Asi ziran entierroa kantatzen, jaiki zan difuntua lenagoko itzera, ta esan zuen deagarka: *Jaungoikoaren juizioa justuagatik kondenatua izandu naiz*. Au aditu ezkerro, utzi

zuten entierroa, ta eman zioten animalien sepultura. Asko anima konbertitu ziran ikusgarri ikaragarri ura zala motibo. An arkitzen zan orduan San Bruno ere, ta au zala motibo utzi zuen mundua, ta fundatu zuen Kartujoen Relijioa.



IRUGARREN KONSIDERAZIOA

Betiko infernuaren gañean

Il bear degu, ta gutxiena uste degunean alere, ta andik puntuko agertu bear degu iltzen geran lekuan beartan Jaungoikoaren tribunalean merezi degun sententzia errezibitzera, betiko gloriako, edo betiko infernurako. O ta azkeneko au izaten bada! Betiko infernua? Zer da infernua? Gaitz, ta pena guztiak berekin dituen, ta onik batere ez duen leku bat. Zer da infernua? Jaungoikoaren justiziak gaiztoak beti dastigatzeko señalatua daukan leku izugarri bat. Nai dezu ikusi kalabozo izugarriak? An dezu guztietan ikaragarriena. Nai dituzu ikusi gauza ikaragarriak? An dituzu guztietan ikaragarrienak. Nai dituzu borrero ikaragarri ta kruelek? An dituzu guztietan ikaragarrienak, ta krueleenak. Nai dituzu lagun gaisto, ta jenio madarikatuak? An dituzu diran gaiztoenak, ta gogotik gorrotatuko dituzunak. Nai dituzu entzun desdtxa negargarriak? An dituzu diran negargarrienak, beti negarra, beti karrasia, beti maldizioa, ta beti desesperazioa. Nai dezu sentitu usai gaiztoa? An sentitzen da danik gaiztoena. Nai dituzu padezitu gorputzeko penarik andiena? An padezitzen dira, ta bakoitzak alere, mundu onetako pena guztiak batera batuta baño ere andiagoak. Nai dituzu ikusi berun urtuak, pike, ur, ta olio irakiñak, azufrezko su ikaragarria, ta pensa alditezken gauza penagarri guztiak? An dira guztiak, an padezitzen dira guztiak, ta padezitzen dituzte bakoitzak, ta beti, ta betiko, instante batean ere alibiorik ez dutela, ta iñoiz ere izango ez dutelako seguridadearekin: esperanzarik ez dutela, andik ateratzeko, ez ta ere beren penak gutxiagokoak iñoiz izateko. O! Zer da au? Adanen seme, ta alabak ere ara joaten dira? Bai. Kristabak ere bai? Bai. Beraz ni ere izan nindeke aiiñ desgraziatua? Duda gabe, Jaungoikoaren bildurrean bizitzen ez bazera, bada onelakoak joan dira ta joango dira ara.

O anima nerea! Zer da au, edo non gaude, edo zer egin degu, zertan pensatzen degu? Jaungoikoaren grazian, edo pekatuan gaude? Ai anima nerea! Posible bada, gu desdtxa artan ikustea, ta orregatik ere gu bildur gabe? Gu gure obligazioak kunplitzeaz azturik, mundu onetako banidadeen, honren, dibersio gaizto, ta peligrsoen, ta ondasunen amorioan itxuturik, pekatuari bildur gabe, ta obra onetan enpleatzeko, gogorik ez degula? Zer intxiso, edo enkantu da gurea? Nola bizi gera lorik izanditekeen izugarrien onetan? Zer, allegatu gitezkeela beti su garretan, ta pensa alditezkeen baño andiagoko beste tormentuetan, beti negarra, beti karras-

sia, beti desesperazioa, beti maldizioa, ta desdtxa guztietan egotera, urteak joan, ta urteak etorri, ta lenbiziko egunean baño esperanza geiago ez degula, andik iñoiz libratzeko; geiago martirizatzeko maiz deagar egiten zaigula, beti, beti egon bear dezute, emen orrela penatzen: desdtxa hau guztia, ta guk konprendi aldezakegun baño geiago gerta aldagikula, ta orregatik ere gu bildur gabe, ta artarako bidean juiziorik gabe gabiltzala? Ta jakiñik alere, ez degula gure bizitzaz instante segururik? Bizi naiko degu oraindik ere ezin erremediatuko dan kalte guztietan andiena erakarriko digun deskuido negargarri onetan? Ez, ez, anima nerea; esna gaitezen gure lo pisutik, ta kosta dediña kosta dedilla, utzi diozagun bereala munduaren amorioari. Utzi diozagun eskaintzen diskigun banidade, honra falso, dibersio gaizto, ta peligrso, ta beste gauzai. Utzi diozagun pekatuari, ta aren bideai, jaungoikoak denbora eman digun ezkeror, bes-tela etorriko zaigu ordua, beti pena izango deguna, ez utzia. Ekin diozagun bereala bizitza santu bati animo andiarekin, munduaren esan besanak beste gogorazio guztiak despreziatuta. Badira munduaz kasorik egin gabe, Jaungoikoaren bildur santuan bizi diranak, ta pekatuko bideak utzirik, obra onetan enpleatzea, beren dusto guztia dutenak; segi diezagun onelakoai. Esan dezatela munduaren amanteak, ta lagun gaiztoak nai dutena, juizio gabeak bezala. Ez badira denboraz juizioan sartzen, guk parra egingo degu aietzaz egunen batean, Jaungoikoaren aurrean lotsaturik, ta negarrez daudela, esaten dutenean, Espiritu Santuak dion bezala, berak izan zirala juizio gabeak, ta ez gu. Munduko dibersio peligrsoak, ta guztoak utzi, ta Jaungoikoa serbitzeko denbora gutxiko nekeak libratuko gaitu betiko neke, ta penetatik, ta Jaungoikoak berak egingo digu etsegiña, besteai bezala, bera serbitzeko nekea. Animo bada, anima nerea, lagunduko digu Jaungoikoak falta gabe bere graziarekin, egunero gu bezalakoai bezala; ta kenduko die aienai bezala, gure pasio gaiztoai bere graziarekin beren indarra.

O nere Jaungoiko miresikordiosoa, egizu nigan Zure miserikordia neurri gabeagatik beste asko pekatarietan egin dezuna. Il nazazu guztiro pekatutako, ta bizi nazazu bakarrik Zuretzako. Amen. Ez det nai geiago Zure ofensarik, sobra ofenditu zaitut oraindño.



Ejenploa

Letzen da Aita San Bernardoren ordenako liburuetan, Jaungoikoaren bildur gabe bizi zan Faukonio zeritzan gizon bat arrats batean ezin loak arturik zegoela, ta jira biraka oian zebillela, akordatu zan betiko infernuaz, ta esaten zion bere buruari: Zer da au Faukonio? Zer egiten dezu? Zer pensatzen dezu? Etzaude benturaz oi eder biguñean? Bai. Ta orregatrik ere artzo zenduke zuk bi urtean bakarrik ere onela illunbetan, ta ezin lorik egin dezula egotea, mendi bat urre eskañiko bali-zukete ere? Ez. Ta oraindik gauztoago izango litzake, orretzaz gañera gaitz gogor batekin egon bear bazenduke. Pentsa zazu orain, zer egingo duen eriotzak zure gorputzaz, ta animaz. Gorputza kargatuko da arraz, ta pekatuz kargaturikako animari prestatuko zaio infernuko suaren garreki-ko oi izugarria, zeñetara izango da erremedio gabe botatua ez amar urte-ko, ez euneko, ez ta ere milla, a amar milla urteko, baizikan eternidade guztirako, betiko. O eternidade! O beti penetan bizitzea! Onelako pensa-menduak egin zituen, ta ainbeste mugitu zuten aren barrena, edo biotza, ze ez jokoak, ez beste dibersioak, ez jate, edo konbiteak, ez adizkideak, ez iñork ere, ta ez ezerk ere ezin sosegatu izan zuen, alik eta San bernardo-ren Relijioan sartu zan artean, zeñean Relijioso Santu bat izan zan.

LAUGARREN KONSIDERAZIOA

Zeruko gloriaren gañean

Il bear degu, ta gutxiena uste degunean alere: ta bereala agertu bear degu Jaungoikoaren Tribunalean betiko gloriarago, edo betiko infernura-ko sententzia errezibitzera. Bietatik zeñ merezi degun, ura. Bat edo bes-tea erremedio gabe. Ai Zerurako izaten badegu, zeñ zorioneakoak izango geran! Palaziorik izan ditekkeen zoragarrienean, lagunik diran atsegiñen konpañian, ez goserik, ez egarririk, ez gaitzik, edo miñik, dan txikienik ere, ez otzik, ez berorik, ez gorputzeko nezesidaderik dan txikienik ere; ez etsairik, ez enbidiosorik, ez oztasun dan gutxienarekin ere begirutzen digunik, ta on guztiak ugari, ta biotzak eska dezakean baño geiago. Guztia konbenienzia, guztia konsueloa, guztia alegria, guztia kanta, guztia musi-ka, ta zoraturik Jaungoikoa amatzea, ta alabatzea, ta beti ta betiko, ta beti ala izango geralako seguridadearekin, iñoiz ere aspertzen, edo gutxiena ere gogoan jotxen ez gaituela ainbeste zori onak. O, zori ona! O nola bedeinkatuko ditugun orduan, pekatuai, ta aietarako bideai utzi, ta Jaungoikoa serbitzeko artu genituen nekeak.

O anima nerea! Zertan pensatzen degu? Norako gaude? Bizi gera benturaz ditxa artara allegatzeko moduan? Gogoratzen ditugu munduak askaintzen dituen engañoak, banidade, honra false, dibersio gaizto, ta peligroso, ta konbeni ez diran beste gauzak? Gorrotatzen ditugu peka-tuak, ta aietarako bideak? Bizi gera Jaungoikoaren bildur santuan, pakatu-tik alde egiñik kristau onaren bizimodua egiten degula? Zer diozu anima nerea? Zer kuidadoa izan dezu oraindaño, zori on ura seguratzeko? Ai anima nerea! Aitortu bear degu, alako gauzarik ez balizake bezala bizitu izan gerala, mundu onekin zoraturik, pekatuari erraz leku ematen diogu-la, ta Jaungoikoaren gustoko gauzetan enpleatzeko, gogorik ez degula. Ai gure Itxutasuna! Ai gure juizioaren falta! Mundu onetako gauzak izatea-gatik, ta emengo gustoak kunplitzeagatik ere, neke handiak artu izan ditu-gu; bein baño geiagotan gorputzari loa kendu diogu, bai ta ere deskansua, ta asko peligrotan jarri ere gera; ta gure betiko zori on ezin konprendiga-rria logratzeko, batere nekerik artu nai izan ez degu. Kontrara guztia egin izan degu, ura galtzeko, pekatuan, ta artarako bidean ibiltzeko, neke andiak artu izan ditugu, gutxi, edo geiago dirua ere gastatu degu, ta beste gauza asko egin ditugu. O gure itxutasuna! O gure juizioaren falta, diot berriz ere, ta gure buruari arrika emateko, ainbes neke artzea! Munduko



gauzak izateko, ango gustoak kunplitzeko, ta dibersio gaizto, ta peligro-soetan ibiltzeko, ta pekatu egitego, artu degun baño neke gutxiagorekin irabazi genezakean zori on ura, baño naiago izan degu, ura galtzeko neke geiago artu, ura irabasteko neke gutxi, edo txikiagoa baño. O gure juizio-aren falta! Ea anima nerea, denbroa da ia, gu juizioan, edo arrazoian sar-tzeko, jaungoikoak oraindño sifritu digun ezkerro. Pensa dezagun, edo betiko zori ona, edo betiko zori gaiztoa izan bear degula, bien bata erre-medio gabe, ta au gutxiena uste degunean. oraindñop betiko zori gaiz-tokoak izateko, nekatu gera. Naiko degu aurrera ere neke orretan segitu? Ez, ez, ez. Izan dezagun juizioa. Begira diozagun gure buruaren onari. Izan diozagun oraindño baño amorio geiago. Bildur gaitza betiko zori gaiztokoak izateak, ta enamora gaitza getiko zori onekoak izateak. Ekin diozagun ziñez infernuko bideari utzi, ta Zeruko bideari. Gure egunak laster akabatuko dira, ta Jaungoikoaren serbizioan enpleatuko geran den-bora piskagatik libratuko gaitu Jaungoiko miserikordiosoak, beti pena, ta desesperaziotan egotetik, ta eramango gaitu, berarekin betiko zori one-koak izatera. Anima gaitzen, San Agustin, ta gure gisako beste ezin konta ala asnimatu izan ziran, ta egunero animatzen diran bezala. Lagunduko digu guri ere aiei bezala bere graziarekin gure Jaungoiko onak.

Bai nere Jaungoiko miserikordiosoa, ez dago Zure miserikordiaren eskua laburtua. Eskatzen dizut, ta espero det Zure grazia nere pekatuen kate guztiak urratzeko, ta munduaren amorioa utzirik, Zure serbizio san-tuan il arteraño irauteko. Ez det nai geiago pekatu-rik, sobra oraindño ofenditu det Zure ontasuna.

Ejenploa

Kontatzen du Tomas Estupiok Tomas Moro beneragarriaren bizi-zako liburuan: Arkitzen zalarik karzelan Iglaterako Kanziller Tomas Moro beneragarria, obeditu nai etziolako Erregeri Erromako Eliza Santarekin ongi etzetozen gauzetan, persegitu zuen Erregek bere perso-naz gañera, aren familia ere, ea aren penak badere mugituko ote zuten berari obeditzera. Onelako penakin estuturik, joan zitzaion egun batean emaztea karzelara, ta erregutu zion negar andiak, erruki zedilla arren artzaz, ta obedi ziozala Erregeri, bada orrenbesterekin biziko zirala ongi. Galdetu zion senar beneragarriak emazteari, zeñari Luisa zeritzan. Luisa, zenbat urtean deritzazu bizi naitekela mundu onetan, ta ainbeste estima-

tzen dituzun ondasunaz aprobetxatu naitekela? Erantzun zion emazteak; ogei urtean badere bai, nere senar maitea, Jaungoikoak nai badu. Orduan esan zion senar Santuak: Zer, nai dezu benturaz, troka dezadan ogei urte-gatik eternidade osoa, ogeui urteko konbenienziagatik eternidade bateko, edo betiko gloria? Tratalari txarra zera, nere emaztea. Eskañiko bazenida-ke millaren bat urte, or nonbait, ez litzake erokeri aiñ andia izango; baño ala ere, zer izango litzake ori guztia eternidadearen aldean? Onela despei-tu zuen bere emaztea, ta iraun zuen sendo Erregeri obeditu gabe.

Gure Jesus onaren pasio santuan konsideratu nai duenak Kalbarioko pauso bat edo geiago letu ditzake, ta ala izanfo du artarako gaia Santuak dioten bezala, geiago irabaziko du, piskatxo bat ere sentimentuarekin Jesus onaren pasio santuan konsideratzen duen bakoitzean urte guztian, ur ta ogi barau, ta beste onelako penitentzia gogorrek egin ta ere baño.



LAUGARREN KAPITULOA

Eriotza gogoan ekartzeko modu egokiak

Asko kristau Jaungoikoaren bildurrean bizi diranak dute kostunbre, batzuek astean beiñ, besteak illean beiñ, eriotzako ejerzizioa egiteko. Onetarako autotzen duten egunean konsideratzen dira azkeneko gaitzan bezela, ala baleudelako konsiderazioarekin konfesatzen, ta komulgatzen dira, ta pasatzen dituzte konsiderazioarekin extremaunzio santua artze, ta il arteraño azkeneko gaitzan pasatzen dan guztia. Au guztia egiten dute eriotzaz obeto akordatzeagatik, ta aren oroipenak pekatutik alde eragin, ta Jaungoikoaren bildur santuan konserbaizi ditzan. Guztiz probetxugarria da gauza au, ta orregatik Santuak ere usatu dute.

Nere Aita San Franziskuaren ordenako Relijioso Santu bat modu onetan saiatzen zan, eriotza gogoan irukitzera.

Astelenean, konsideratzen zuen eriotzako gaitzak artzen zuela.

Astiantian, agintzen ziola medikuak, konfesatzeko.

Asteazkenean, egiten zuela bere pekatu guztien konfesioa.

Ostegunean, Jauna errezibitzen zuela.

Ostiralean, ematen ziotela Extremaunzio Santua.

Larunbatean, iltzen zala.

Igandean, pistutzen zala bere bizitza obetzer.

Meditazio abek gozatzen zituen beste meditazio batzuekin.

Astelenean, pensatzen zuen aren biotzak egon bear zuela Jaungoikoaren amore miñez lllagatua.

Astiantian, bisitatzen zuen Medikua zala Jesukristo gure Jauna bera animen Medikua, beren gaiz guztietatik sendatzeko, Zerutik jatxi zana.

Asteazkenean, aren konfesorea zala Jesukristo gure Jauna bera; zeñaren oñetan, Ebanjelioak kontatzen duen emakume konbertituak bezala, ta negar ugariakin konfesatzen zituen bere pekatuak.

Ostegunean, errezibitzen zuela Komunioa Apostoluakin batean Jesusen eskuetatik.

Ostiralean, untatzen zituela, Jedsus onak gugatik issuri zuen odolarekin.

Larunbatean, iltzen zala Jesusen saiatzeko lllagan.

Igandean, pistutzen zala Jesusekin berarekin, ez iñoiz geiago izultze-ko kostunbre gaiztoetara, ta pekatuarekin anima iltzera.

Santu andi bat egin zan Relijioso ura kostunbre santu onekin.

BOSTGARREN KAPITULOA

Gure azkenak gogoan ekartzeko modu egoki bat

Beste modu bat sortu dute jaungoikoaren bildurreko kristabak gure azkenak ongi gogoan irukitzeko; ta ara nola.

Bost amarreko Arrosario bat errezatuko balitzake bezala, pasatzen dira bost amarrekoak espazio andiarekin modu onetan. Arrosarioaren gurutzean esaten du bakoitzak bere artean. Akorda zaitzez zure azkenazm ta ez dezu iñoiz pekatutik egingo. lenbiziko Aita gure esaten dan orde, ta orobat beste laubak, esango du: O eternidadea! O beti penetan egotea! Amar Abe Maria esan bear diran orde esango du bakoitzagatik: O eriotza! O eriotza! O juizioa! O infernua! O gloria! Gloria Patri esaten da orde esan diteke: Zer izango ote da azkenean nitzaz? Onela bost amarrekoak. Azkenean esan diteke: O Jauna, indazu arren grazia, Zure bildur santuan beti bizitzeko, azken ona, ta gaiztoa izan dezadan. Debozio au egin diteke erozeiñ lekutan, ta erozeiñ donboretan; ta ez dago dudarik, au egiten segitzen duenak, iraungo duela Jaungoikoaren bildurrean: Ez da utzi bear Arrosario berri onegatik Ama Birjiñaren Arrosarioa, kontrara, berri onek mugitu bear gaitu artara, ta beste obra onetara, ta lenbizi, segitzen dan kapitoloan esaten danera.